

ARAUDIA

EKIALDE 2023 CROSS-TRAIL TXAPELKETA

1. Artikulua

“Ekialde 2023” kros-trail txapelketa, 5 lasterketaz osatuta dago, lasterketa hauek mendi-kros modalitatekoak direlarik.

Lasterketak hurrengo hauek dira:

- Almadiaren herri lasterketa: Burgi, 10km, 250+, 2023ko Apirilaren 16a
- Liskar-eko krosa: Ledea, 6,75km, 270+, 2023ko Maiatzaren 14a
- Larrazkeneko krosa: Ezkaroze, 8km, 350+, 2023ko Urriaren 14a
- Iturberoko krosa: Irunberri, 10km, 550+, 2023ko Azaroaren 19a
- Klavilloko krosa: Oibar, 6,2km, 200+, 2023ko Azaroaren 25a

2. Artikulua

Txapelketa osatzen duten lasterketa bakoitzak bere araudia izanen du, beraz antolakuntza bakoitzak boterea izango du araudi hori betetzen ez duten lasterketako edozein partaide kanporatzeko.

Txapelketako araudiak hurrengo aspektuak bermatzen ditu:

- Puntuatzen duten lasterketak (1. Artikulua)
- Kategoria ezberdinak (3. Artikulua)
- Sariak (4. Artikulua)
- Puntuaketa sistema (5. Artikulua)

Lasterketan eragin izan dezaketen beste gai guztiak lasterketa bakoitzaren araudiaz bermatua egonen da.

3. Artikulua. Kategoriak

Txapelketak 2 kategoria ezberdin izanen ditu. Orokorra Gizonezkoak eta orokorra Emakumezkoak.

Partaide bakoitzak puntuak gehitzen joango da segun eta bere sailkapenak, kontutan izan gabe lasterketa bakoitzak jarritako kategoria ezberdinak.

4. Artikulua. Sariak

Lehenengo 5 sailkatuak izanen dira sarituak. Bai gizonezkoak eta emakumezkoak. Horretarako txapelketan puntu gehien batu dituztenak kontutan edukiz.

Hortaz aparte, lehenengo hiruek bertako enpresen produktuez eginiko loteak jasoko dituzte.

Sariak txapelketaren azken lasterketa amaitutakoan banatuko dira.

5. Artikulua. Puntuaketa

Txapelketaren puntuaketa sistema hurrengo izango da:

- Lasterketa bakoitza amaitzeagatik 25 puntu.
- 25 puntu horietaz aparte sailkapeneko ordenaren arabera puntuak banatuko dira:

Sailkatua	Puntuak	Sailkatua	Puntuak	Sailkatua	Puntuak
1. sailkatua	100	12. sailkatua	68	23. sailkatua	48
2. sailkatua	94	13. sailkatua	66	24. sailkatua	47
3. sailkatua	89	14. sailkatua	64	...	
4. sailkatua	85	15. sailkatua	62	
5. sailkatua	82	16. sailkatua	60	
6. sailkatua	80	17. sailkatua	58	
7. sailkatua	78	18. sailkatua	56	
8. sailkatua	76	19. sailkatua	54	70. sailkatua	1
9. sailkatua	74	20. sailkatua	52		
10. sailkatua	72	21. sailkatua	50		
11. sailkatua	70	22. sailkatua	49		

6. Artikulua

Izen ematea bakarrik Internetez egin ahalko da, www.herrikrosa.eus-web gunean.

Txapelketaren sailkapen orokorra eta lasterketa bakoitzeko sailkapena web hortan aktualizatuak izango dira.

7. Artikulua

Txapelketa hau ez dago inongo federazioen menpe eta bere araudia dauka. Araudia txapelketa antolatzen duten 5 lasterketetako antolakuntzez osatutako komisioak egina dago, beraz edozein zalantza edukiz gero, jarri kontaktuan lasterketen antolakuntzekin, eta ahalik eta azkarren erantzunak dizuegu.